

Funtsezko asoziazioak

Beste enpresekin elkarlana egiten saiatuko gara, gure enpresak hobeto funtziona dezan:

- Umeek gustoko duten beste jarduera edo klub batekin kolaboratzea aukera bat izango litzateke, horrela, biak onuradun aterako ginateke biek bi enpresak gomendatuko genituelako eta bien botere eta zerbitzuak batuz handiagoak egingo ginateke.
- Jostailuak eta jokuak saltzen dituzten dendekin kontaktuan jarriko gara beraien produktuak erosteko, publizitatea egiteko eta umeen gustukoa den ala ez jakiteko. Ordainetan, prezio merkeagoa lor dezakegu.
- Guraso elkarteekin harremanetan egongo gara dituzten beharrak detektatzeko. Bezero potentzialak direla kontuan izanda, hauekin harreman estua izatea garrantzitsua izango da.
- Inguruko baseritarrekin harremanetan jartzea, izan ere, umeentzako sukaldatu behar dugunean beraien bidez lortuko ditugu beharrezko barazki eta jakiak.
- Udaleko gizarte zerbitzuen kolaborazioa egitea, modu horretan, zailtasunak dituzten familiei laguntzeko aukera izango genuke.

